

EUSKAL-FÉSTAK DONIBANEN



Festa eder oek egingo dira aurten, Abuztuaren 26, 27, 28 eta 29-an.

EUSKAL-ERRIA-n len esanaz gañera, izango dira sariyak neurtitzlari-itzkribatzalle eta bersolarientzat.

Lenbizikoen artean sariya irabazten duenari emango zaizka 100 pezeta; eta 50 pezeta *aldeera* -ren diña danari. Gaya da: *Euskal-Erria, bere oitura, usantza eta libertade zarrak*, eta moldaerak bigaldu bear dira, luzeenaz ere, Abuztuaren 20,^{garren} egunerako, zuzende onekiñ:

France

Mairie de

S.^t Jean de Luz.

Bersolarientzat siñalatu dira bi sari: lenbizikoa 60 pezetakoa eta bigarrena 30-ekoa.

